

Kultur eskaintza zabala

Gipuzkoako ikastolen aldeko jai handia gaur ospatuko da. Urtean zehar, ordea, kultur ekintza ugari izan da Donostian. Folk kontzertua, xake txapelketa, haur jaialdia, Orfeoia kontzertua eta gastronomia izan dira besteak beste Donostiako auzoetan ikusi ahal izan direnak.

Kilometroetako koordinatzaileetako bat den Mikel Arrizabalagaren hitzetan, «Donostia girotu nahi izan dugu». Ahalegina handia izan den arren, emaitza ez da nahi bezain ona izan. «Donostian auzo asko eta jende ezberdin asko dago. Horrek asko zailtzen du lana», Arrizabalagaren ustez. Halaber, Donostiak kultur eskaintza ugaria duela uste du, «eta iruditzen zait askotan bereizketa bat egiten dela: batetik eskaintza ofiziala dago, eta bestetik minoritarioa den eskaintza. Lehenak babes ofiziala duenez, bai diruaren aldetik eta bai azpiegitura aldetik, ez du inoiz arazorik izaten. Besteok, berriz, eta ez gu bakarrik, minoritarioak gara egiten dugun eskaintza egiten dugulako. Hala ere, Donostian egiten den kultur eskaintzaren % 90

rruan ematea indarririk gehienak, eta koantitatiboki handiago eta koantitatiboki elkar-eragin zuzean dauden beste esparruetan ahalegin parekoa behintzat ez egitea».

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ziurtatzearekin batera, gizarte hurbilari garrantzi berezia eman behar zaio ikastolen ustez: «Familiak, ikastolak

eta gizarte hurbilak osatzen duten ardatz hori lantzea eta jorratzea oinarritzko eta ezinbesteko da euskararen etorkizunerako». Aurtengo Kilometroaren inguruan antolatu diren kultur ekitaldi guztiak helburu jakin horrekin egin dira, «eta gizarteak horrelaxe ulertzea izango da oraindik ere lan eta ahaleginetan ari garenon ilusio eta pozik handiena».




Kilometroak 95eko materiala urte osoan egon da salgai.

Ez dio Haziendari ordaintzen.



Haziendari ordaintzen dio.



«Familiak, ikastolak eta gizarte hurbilak osatzen duten ardatz hori lantzea eta jorratzea oinarritzko eta ezinbesteko da euskararen etorkizunerako».

gorde egin behar dela uste dut». Donostian «era indartsu batean» gauzak aurrera ateratzeko azpiegitura sendoa eta babes ofiziala behar da, Arrizabalagaren ustez, «bestela oso zaila da». Era berean Donostiak kultur eskaintza zabala duen arren, «ez dakit eskaera horrenbestekoa den. Susmoa daukat Administrazioaren aldetik ez ote dagoen 'egin behar' bat».

FAMILIA ETA IKASTOLA Herri Ametsa eta Zurriola ikastolek urtean zehar antolatu duten eskaintza kulturala ikastola-familia-gizarte ardatzean oinarritu da. Antolatzaileen ustez, «ekonomikoa da ikastolen beharrianik ezagunena, baina era berean badira beste batzuk lehentasuna dutenak, eta ikastolen ibilbide luzean gogoeta, kezka eta lana ugari sortzen dutenak».

Horietako bat «belaunaldiz belaunaldiko euskararen transmisioari dagokiona da», antolatzaileen ustez. Emandako datuen arabera, ikasleek eskolan urteko esna-orduaren % 17 pasatzen dituzte gehienez ere, «beraz ikasleek esna-orduaren % 83 guxtienez eskolatik kanpo ematen dituzte. Horregatik zentzugabekeria litzateke eskolaren espa-

Beti Haziendari ordaintzea egokitzen bazaizu, zatoz Euskadiko Kutxara eta, zergak aurreratuz, diru gehiago emango dizun aurrezki-formula bilatzera lagunduko dizugu. Baina, zatoz ahalik eta azkarren. Horrela, zure hurrengo Aitorpenak bukaera ezetsua izango du.



Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, goizez zein arratsalde. Edo 901-333 444 telefonoan, gaueko 10ak arte.

Abantaila fiskaleko
Eperako aurrezkia


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA